

Master berria irailerako: Hezkuntza testuinguru multikultural eta eleanizetan

2010/02/08

Aneca eta Uniquial ebaluazio agentziek **ontzat eman dute** HUHEZIK prestatutako master bat: **Hezkuntza testuinguru multikultural eta eleanizetan**. Hortaz, datorren irailean fakultateak master hori eskainiko du, euskaraz eta gaztelaniaz, *on line* modalitatean.

Master berriak eleaniztasuna eta kulturartekotasuna landuko ditu, bi ibilbiderekin: batetik, masterra bera egin ahal izango da, eta, bestetik, balio izango du ikerketa-ibilbidea egiteko, orain arte doktorego ikasketak zirenak. Masterra erabat *on line* izango da.

Zertarako?

Master honek prestatu nahi ditu profesionalak, gai izan daitezen kudeatzeko hezkuntza esparru asko, aurrez ikusteko ikasleen hezkuntza premiak, antzemateko ikerkuntza arazoak eta egokitzeko gizarte aldakorretan.

Norentzat?

Master hau prestatu da bereziki espezialista izan nahi dutenentzat eleaniztasunean eta kulturartekotasunean, irakatsi nahi dutenentzat hezkuntza arautuan eta ez arautuan, prestatzaileak prestatu nahi dituztenentzat, gai didaktikoak diseinatzen dituztenentzat eta gai hauetan sakondu nahi dutenenentzat (gurasoak, elkartek...).

Ikasleek aukera izango dute masterra euskaraz nahi gaztelaniaz egiteko, beren profil edo nahien arabera. **Metodologia, berriz, erabat aktiboa** izango da, oinarrituta arazoaren konponketan eta proiektu baten garapenean.

Informazio osoa

Nahi duenak informazio xeheagoa masterraren inguruan, egin dezala klik ondorengo dokumentuan, hor aurkituko du-eta nahi duena:

